



1. "Etxean kontu-kantari"

Gaur etxeko txoko honetan, ipuinak kontatzeko gomendio batzuk helarazi nahi dizkizuegu. Batetik, ahoz kontatzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu, ipuin bakoitzak mezu bat du eta ipuinaren helburua da mezu hori komunikatzea. Beraz, helduak emango dio kontaketa nahi duen intentsioa, erabiltzen dituen hitzak eta espresioen bitartez. Bestalde, azpimarratu ipuinak komunikatzen duena ziurtatzeko, helduak bere hitzak erabili behar dituela; hau da, bere modura kontatu behar duela ipuina. Kontaketak ezin dira egin hizkuntza artifizial batean, haurrak ulertuko duen modu apal batean baizik. Katalanek "ipuina kontatu" baino "ipuina esplikat" egiten dute; eredu bat izan daiteke guretzako. Praktikatu, ea gustatzen zaizuen [etxeko txokoaren](#) proposamena.

2. "Ipuinez ipuin"

Mundu osoko ipuinek antza handia dute, kezka berdinak azaltzen dituzte eta horietaz hitz egiteko antzeko baliabideak erabiltzen dituzte erantzunak eskaini nahian... Gaur ilargia aukeratu dugu hizpide; ipuin askotan azaltzen dira ilargiaren izaerari buruzko azalpenak: zerez eginga dago?; nora doa eguna datorrenean?; zergatik azaltzen da soilik egun batzutan?; zeren arabera handitzen da edota txikitzen da?; gure gainera eroriko al da? Buletinean behin baino gehiagotan aritu gara ilargiari buruz; begiratu [Ilargia gazta handi bat da](#) edota [Nola dastatu ilargia](#); baina gaurkoan ipuin finlandiar batean oinarrituko gara ilargiaren faseak zergatik suertatzen diren ulertzeko: [Ilargia pintatu zutenekoa](#)

Abrite portas, klis-klas!

3. "Gela barnean"

Liburuen proposamenari helduko diogu oraingoan, beste hiru gomendio luzatuz. Gaurko ipuinen gomendioetan baloreak pil-pilean aurkeztuko ditugu. Ipuin baten atzean beti dago irakaspenen bat eta hori komunikatzeko sortzen da ipuina bera. Baina aurkezpen moduan kontuan izan behar da irakaspen hori modu sotil batean azaltzea. Izan ere, ipuinak ez dira botikak, baina helduoi erakusten digute haurrentzat zailak diren hainbat gai eredu zuzenak erabiliz transmititzen. Gehienetan, musu-truk kontatuko ditugu ipuinak, baina noizean behin, hauek oinarri hartu eta ipuinen esanetan murgilduko gara, gure eta haurren hausnarketak bideratzeko.

[Kokoriko](#)

[Hodeiekin dantzatzen](#)

[Gorila bat](#)

4. "Egitasmoa martxan"

Aurrera doa egitasmoa Aretxabaletan, eta bertan ere, *Bularretik Mintzora*-ren ezagugarrietako bat abian da: ebaluazioa, hain zuzen.

2013 bukaeran guraso eta irakasleek hasierako galdekizuna bete zuten, eta laster izango dugu prest lehenengo txostena haien irakurketa eta haur literaturarekiko informazio eta jarrerak mahai gainean jarriko dituen.